

ELKARLANEAN

Lourdes

Juan Luis

Konfinamenduan zehar, nola koordinatu zarete zure Caritas-parrokialetik CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langileekin?

Harremana oso hurbila izaten ari da. Nire eskualdeko CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langilearekin, hainbat aldiz hitz egiten dut egunero. Whatsapp bidezko komunikazioa ere, erraza da oso. Lehen ere, baina jasaten ari garen egoera dela eta, etengabe komunikatzen gara. Oso harkorra da, eta babestuta sentitzen naiz.

Une oro, parrokiatik eskatutako arreta jaso dugu: baita hurbiltasuna eta laguntza ere. Kontaktua estua izan da. Elkar gehixeago ezagutuz joan gara; konfiantzan, elkarrizketarako gaitasunean... aberastuz. Oso harreman jarraitua izan da. Honek puntu eta jarraipen bat izan behar du; hori da etorkizuneko erronka.

Harrerak, telefono bidez egin dituzue. Zer nolako esperientzia izan da egoera berri honen aurrean?

Aurrez aurreko harreraren ordeztu telefono-deiak egin dira, eta ondo moldatu gara. Nire Caritas parrokiako harrera, kafetegi jendetsu baten ondoan dago; egoera hori nahiko zaila zen Caritasera galderaren bat, etab. egitera joaten ziren pertsonarentzat. Hau da, begiradak. Telefono bidezko harrerak are gehiago erraztu du harrera pribatu eta anonimoa. Caritasen laguntza eskatzen dutenek hurbil sentitzen gaituzte, eta guk eurak babesten jarraitzen dugu.

Aurrerapen teknologikoekiko zaletasun handirik izan ez dugunok, zaila egiten zaigulako, egoerak behartu egin gaitu horretara, birziklatu egin gara, eta bere alde positiboa onartzen dut. Bizi izan ditugun gorabeherak direla eta, presentzia fisikoaren zailtasuna dela eta, telefono bidezko arreta oso hurbil eta baikorra izan da. Baita online harremanei esker, pertsonen kasu egin ahal izan diegu eta eremu guztietan, baita lagunduak ere. Hobetu ahal izan dugun guztiak etorkizunerako balio izatea espero dut.

Lourdes

Juan Luis

Arretetan, CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langilearekin koordinatuta, bizitza-historiak, pilatu egin al dira?

Errealitate zailei erantzun diegu; taberna galtzeko zorian dagoen pertsona bat errentari aurre egin ezin diolako... Hau da, negozio bat izatetik dena galtzeko zorian egotera. Errealitate konplexuak.

Ez nuke esango orain arte bizi ez genituen egoera bereziki zailak 'ikusi' ditugunik, ezta beste une edo egoera batzuetan baino zailagoak ere. Batzuetan ez gara konturatzen baina pertsona askok oso egoera delikatuak bizi zituzten pandemia baino lehen. Adibidez, kontraturik gabe lanean ziharduten pertsonak. Jakina, Covid 19aren ondorioz, ezer gabe geratu dira.

Nolako erantzuna eman duzue telefono bidezko laguntzetan?

Familien egoera desberdinei aurre egiteko larrialdiko laguntza ekonomikoetan jarri dugu arreta. Ahalik eta hurbileneko elkarrizketak izaten ditut beraiekin; haien egoeraz arduratzen gara... Solasean aritu, hitz egin... Arreta jaso duen pertsonak bereziki eskertzen du.

CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langilearen laguntzarekin, laguntza eta babesak bideratuz joan gara. Ondo koordinatu gara eta, ahal den neurrian, egoera desberdinei erantzun diegu. Alokairuen zati baten ordainketa, elikadura eta osasun-gastuak, umeak tarteko direla, izan dira emaniko laguntza ekonomiko nagusiak.

